

Santu Guztien Eguna

UROLA
KOSTAKO **HITZA** **OKA**

HERIOTZAREN ETA BIZITZAREN ARTEKO ARGIA

Hildakoei eskaintzen zaien eguna da Santu Guztien Eguna. Hurrengo asteazkenean, azaroak 1, izango da ta hiltzearen inguruan dauden arlo desberdinen inguruko gaiak landuditu HITZAk honako gehigarri honetan.



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK TOKIKO WEBGUNEETAN

BALEIKE.EUS:
943 86 15 45
zumaia@ukt.eus

KARKARA.EUS:
943-83 15 27
orio@ukt.eus

MAXIXATZEN.EUS:
943-85 36 17
azkoitia@ukt.eus

UZTARRIA.EUS:
943-15 03 58
azpeitia@ukt.eus

ZARAUZKOHITZA.EUS:
943-89 00 17
zarautz@ukt.eus



Puntuca
Manex Beristain

Jakin nahi dutelako galdetzen dute

Larunbat arratsaldea izango zen, udazken hasierako egun goxo horietako bat.

Heriotza ate joka, urtaroen aldaketa naturalean. Hostoak zuhaitzetatik erortzen, dantzari finenak bezala. Eta herri txiki hartako haurrak, plazan jolasean. Bai, jolasean zebiltzan, naturaltasun osoz, natura bera bezala.

Zortzi bat haur izango ziren larunbat arratsalde epelean. Plazaren ertz batean, haur multzoa joan-etorrian zebilen, jolasa antolatzen. Egurrez egindako esku ohe bat zeukaten lurrean, eta bertan, etzanda, panpin bat. Panpina, ia osorik oihal batez estalia zegoen, burua bistan zuela. Eta inguruan, apaingarri gisa, loreak eta garo multzoa zituen. Halako batean, guztiak isildu eta lerro batean kokatu ziren, modu solemnean. Egurrezko kutxa irekia, lauren artean zutitu eta hunkitzeko moduko isiltasunean plazaren beste alderuntz abiatu ziren.

Zenbait haurrek eskuetan loreak zeramatzen. Zeharkaldi osoan pauso lasaia eta koordinatua mantendu zuten, egiten zuten horretan erabat murgildurik. Plazaren beste ertzean aurkitzen zen belardira heldu, eta egurrezko kutxa, kontu handiz, belar gainean utzi zuten. Aldian aldiko irribarreak albo batera utzita, keinu serioa nabari zitekeen aurpegietan. Kutxa inguratuz borobil bat osatu, eta panpina lorez estali zuten.

Handik gutxira, alaitasun batean zebiltzan jolasean. Bost minutu lehenago hiletara jolastu zuten haurrak ezkutaketan zebiltzan, barre algarra eta garraxi artean.

Jolasa gure barruko zauriak sendatzeko tresna ederra dugula esatea ez da astakeria bat. Alderantziz, gure eguneroko ohituretan txertatzea ederra litzateke. Eta haurrak badak hori, inork esan gabe, zein den jolasaren boterea.

Heriotza bezalako gaiak oraindik ere tabu izaten jarraitzen dute gure jendartearen. Ziurrenik, heriotzari buruzko pentsamenduak izango ditugu aldika. Eta aurrez aurre begiratzeko aukera probestu beharrean, albo batean uzteko bulkada sentituko dugu. Baina heriotzaren gaiak hor jarraituko du zain, noiz helduko. Eta heriotza gure bizi agendan kokatzeak lagundu egingo digu lasaia bizitzan, gauzak errazago askatzen, eta haurren galderei erantzuten.

Izan ere, haur batek heriotzari buruz galdetzen digunean, erantzuna jasotzeko prest dagoelako da. Heriotzari buruz, baina gehienbat bizitzari buruz jakin-mina duelako, eta bizitzaren prozesua ulertu nahi duelako.

Beraz, gure ardura da haurrari, berak ulertzeko moduko hitzekin, heriotzaz garbi hitz egitea.





CARMONA

FUNERARIA EHORZTETXEA

CARMONA EHORZTETXEA **50 URTE** BAINO GEHIAGO DARAMATZA UROLA BAILARAN MOMENTU GOGORRETAN ZERBITZUA EMATEN, GERTUKO TRATUA ETA PERTSONALIZATUA ESKAINIZ.

ETENGABEKO **24 ORDUKO ZERBITZUA DUGU**,
AZPEITIKO ETA AZKOITIKO BEILATOKIETAN.



Carmona Ehorztetxea Pablo VI, 7 - AZPEITIA - Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

Belotokia Azpeitian Ibai-Ondo Kalea, z/g AZPEITIA - Tel.: 943-81 60 42

Belatokia Azkoitian Juin Industrialdea z/g - AZKOITIA - Tel.: 943-85 20 70

Zerbitzu iraunkorra Tel.: 943-15 15 14 - 943-15 09 74

www.funerariacarmona.com

Gertu dugu hiletan iraultza. Izan ere, tradizioari lotutako hiletak eta erritualak aldatzen ari dira. Hala, jasangarritasuna edota digitalizazioa eskaera berrien artean aurki daitezke dagoeneko mundu mailan. Aukera desberdin horiek bildu ditugu ondorengo lerroetan.

Hiltzear ote dira hileta tradizionalak?



DANIEL MORRIS (UNSPLASH)



zainBIZI elkartea
zaintza Bizitzan

**ZUEN ONDOAN
GAUDE,
EZ ZAUDETE
BAKARRIK**

Bizitzako prozesu desberdinetarako bidelaguntza zerbitzua eskaintzen dugu (ondoez fisiko edo emozionaletan, heriotzetan, banaketetan, bizitzako aldaketetan, etab.), tresna eta teknika desberdinen bitartez.

- Dolu terapeuta zerbitzua - Eider Otxoaren eskutik
- Berronkatze energetikoak / Irakurketa energetikoak (aura, txakrak, sistema energetikoaren mapa, etab.)
- 'Gorputz jarrera energetikoaren berreziketa'
- Heriotza eta doluaren lanketarako tailerrak
- Meditazioa eta sustraitzea lantzeko topaketak
- Heriotz prozesuetan eta gaixotasunetan bidelaguntza eta aholkularitza zerbitzuan esperientzi zabala (bai gaixoentzat eta bai famili eta ingurukoentzat)

Norberak bere ongizatea gestioatzeko baliabideak ere eskaintzen ditugu: ikastaroak, hitzaldiak, topaketak, eta abarren bidez.

Kontsultatu gure agenda: www.zainbizieltarte.com webgunean

Antxiola kalea 15 behea, Orío · www.zainbizieltarte.com · 613 02 36 18 ·  

Trikuharriak gorpuak ehorzterako eraturiko monumentu megalitikoak ziren eta K.a. 4.500 urtearen inguruan hasi eta K.a. 2500 urtera arte, gutxi gorabehera, eraiki zituzten gehienak. Oro har, hilobi kolektiboak izaten ziren: hileta egin ostean lurperatzen zituzten, eta inguruko herrietako hildakoak izaten ziren. Orduetik, urteak igaro dira. Askok, hildakoak agurtzeko ohiturak jarraitzen duen arren, agurtzeko errituak eta joerak ere aldatzen joan dira. Betiko ohiturek, oraindik ere, indar handia duten arren, gero eta joera berritzaileagoak ari dira gizarteratzen, eta, poliki-poliki, onarpen handiagoa izaten ari dira horiek. Azken urteetan erraustek oso ezagunak eta erabiliak dira gure artean, baina horiez gain, badira hileta berdeagoak edota etxeagoak eskatzen dituzten bezeroak ere.

Aukerak

Erraustek. Espainian 1973. urtean hasi ziren hildakoen gorpuak errausten, eta ordutik, goraka joan da erretzearen aldeko hautua egiten duten herritarren kopurua. Gaur egun, ohiko errituala da, eta hurrengo urteetan are ohikoagoa izango da. Zerbitzuaren eta mantentze lanen kostu txikiagoak, hilerrietan lekuri eza, lotura txikiagoak eta laikotasunerako joera dira aldaketa horren arrazoi nagusiak.

Hileta berdeak edo ekologikoak. Gizarteak gero eta gehiago eskatzen du jasangarritasuna, eta ehorzterak aukera interesgarriak eskaintzeari ekin diote. Besteak beste, hilkutxa eta errauts kutxa ekologikoak egiten hasiak dira dagoeneko. Memora ehorzterak kasuan, adibidez, 2019an saldatutako hilkutxen %77k baino

gehiagok zigilu ekologikoa zuten. Kutxa ekologikoak, beraz, abian dira, baina etorkizunean *ekohileta* kontzeptua izango nagusi; produktuen eta zerbitzuen ingurumen inpaktuak ahalik eta gehien murrizten saiatuko diren errituak, hain zuzen.

Teknologia. Teknologia ere lekua aurkitu du hiletetan. Hala, hildakoak orozteko bideoak egite modan jarri da azken urteotan. Horrelako bideoak gaubeiltan eta agur zeremonietan erabiltzen dira batik bat. Kontuan hartuta etorkizunean zerbitzua erabiliko duten belaunaldiak *millennials* eta *Z* belaunaldia direla, hileta multimedialak gero eta gehiago eskatuko eta erabiliko dela baieztatu daiteke.

Zibilak. Gizarteak azken hamarkadetan bizi izan duen aldaketa demografiko garrantzitsuekin eta Espainiako gizartearen sekularizazio handiagorekin batera, agur zeremonia laikoaren kopurua etengabe hazten ari da. Aldaketa horrekin batera, migrazioen inpaktuak badu eragina nazioarteko lekualdatzeetan eta gorpuzten aberriratzetan, horien eskaria handituz.

Errausketak likidoak. Errausketetan azken joera hidrolisi alkalinoa edo likuefakzioa deituriko prozesua da. Prozesu horren bidez, gorpua makina batean jartzen da, hezurak izan ezik dena disolbatzen duen soluzio batekin. Hezurak txikitu egiten dira errauts bihurtu arte, eta gero, familiari ematen zaizkio. Suarekin egindako errausketak baino inpaktu ekologiko txikiagoa duen prozesua da, eta kostua errausketak baino arrotarantz antzekoa da.

Etxeetako agurrak. Gero eta gehiagok aukeratzen dute ehorzterak eskaintzen dituzten zerbitzuak ez erabiltzea, eta eurak arduratzea gorpuz. Horrela, familiak garbitu eta jantzi egiten du, etxean bertan beilatzen dute hildakoa eta senideak arduratzen dira hiletaz. Gauza soila eta oso



Azkoitiko hilerriko argazkia.

pertsonala izaten da. Hala ere, beti dago aukera ehorzterak bat edo espezialista bat kontratatzeke, prozesuaren urratsetako baten edo batzuen ardura har dezan.

Egungo eta etorkizuneko joera horiek guztiak, ordea, iritsi al dira Urola Kosta bailarara? Ehorzterak handien kasuan, Memora adibidez, badu eskaera horiei aurre egiteko gaitasuna. Txikiak eta bertakoak, aldi, beste errealitate bat bizi dute «oraingoz». Hala ziurtatzen du Azkoitian eta Azpeitian hileta zerbitzuak eskaintzen dituen Carmona ehorzterak.

«Gure zerbitzuak eskatzen dituzten herritarren artean, oraindik, betiko hileta tradizionalak dute indar handiena, eta horiek dira, batik bat, eskatzen dizkiguten zerbitzuak», adierazi dute Carmonako arduradunek. Hala ere, hileta zibilen gaineko nahia areagotu dela nabaritu dute, eta eurek ere eskari horri erantzun beharra ikusi dute: «Duela urte batzuk ireki genuen agur zibilak

egite aretoa eta eragin nabarmena izan du agur erritualetan; poliki-poliki, gero eta hileta zibil gehiago antolatzen ari gara», azaldu dute.

Gipuzkoan, batez besteko hiletan kostua 4.000 euro ingurukoa da, lurperatzearen kasuan 4.155 eurokoa, eta errausketen kasuan, berriz, 4.049 eurokoa. Azpeitian eta Azkoitian egiten diren hiletan batez besteko kostua kalkulatu oso zaila dela onartu dute Carmona ehorzterakoak: «Azkenean gauza asko hartu behar dira kontuan; lore koroa, kutxa, loreak... Baina hileta batetik bestera ez da alde handirik izaten kostuan; hau da, hileta tradizionala, zibila edo errausketa, prezioan ez dago aldaketa nabarmenik», amaitu dute.

Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara

Garizuma Aste Santuaren aurreko 40 egunetan ospatzen da, Pazkorako prestakizun gisa. Pazko eguna baino 46 egun lehenago hasten da, Hausterre egu-

nean, inauterian pasatu ondoren. Egun horretan, elizkizun berezia egiten da: eliztarrei, bekokiak hauts bedeinkatuz gurtzearen zeinua egiten zaie, ondorengo esaldia esanez: «Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara». Aspaldiko ohitura etorkizuneko joera bihurtu daiteke, ordea, zenbait erritual berri ikusita.

Euskal Herrira oraindik iritsi ez diren arren, munduko beste leku batzuetan badira etorkizunean horren arraroak egingo ez zaizkigun hainbat joera. Azken hilabeteetan ezagunak egin dira pertsona maiteen errautsak ontzi batean uztea baino aukera interesgarriagoak: enpresa ingeles batek bini-lozko disko batean konprimatzen ditu errautsak abesti personalizatu batekin; tatuatzaileek tintarekin nahas ditzakete errautsak eta hildakoaren omenez tatuaje personalizatuak egin; eta Alabama (Ameriketako Estatu Batuak) enpresa batek zuk aukeratutako munizioan jartzen ditu errautsak, tiro egin dezazun. Errautsak sakanatzea ere modatik pasako delako, uste baino lehen.



EGIN ZURE ENKARGUA SANTU GUZTIEN EGUNERAKO.

Egun berezi honetarako zentroak edo lore-sortak behar badituzu jarri gurekin kontaktuan.

943 15 00 85 | garden@kimubat.eus

 KIMUBAT
— GARDEN

  
www.kimubat.eus



UTZITAKOIA

«Inork ez daki bizitzak nora eramango gaituen; urtebetera egoera aldatu egin bazaizu, testamentua alda dezakezu eta ez da ezer gertatzen»

MARI CARMEN URANGA • ABOKATUA

Abokatu zibila da Mari Carmen Uranga (Zumaia, 1967). Familia kontuetan eta testamentuetan aditua da, eta testamentua idatzita uzteak duen garrantziaz aritu da UROLA KOSTAKO HITZAREkin. Izan ere, Urangaren ustez, norbere nahiak idatzita uzteak ondasunak utzi nahi zaizkien pertsonen izapideak errazten ditu.

Testamentuaz hitz egingo dugu, baina zenbat testamentu mota daude?

Bi eratako testamentuak daude: batetik, Aurretiazko Borondate-en Dokumentua, bizi testamentua bezala ezagutzen dena, non zure azken egunak nolakoak nahi dituzun zehazten duzun; eta bestetik, dituzun ondasunak uzteko egiten den ohiko testamentua. Dena dela, testamentuaz hitz egingerakoan, normalean, ondasun inguruko dokumentuaz hitz egingo dugu.

Noiz eta nola egin daiteke ohiko testamentua?

Legeak dioenez, 14 urte betetzen dituzun egunetik aurrera egin daiteke testamentua. Bakoitzak erabakitzen du noiz egin, baina komenigarria da egitea. Horretarako, notaritzara jo behar da, eta han, notarioaren aurrean, zure ondasunak utziko dizkiezun pertsonak izendatu behar dituzu, zure ondasunen oinordekoak nortzuk izango diren, alegia.

Testamentu bakarra egin al daiteke?

Nahi adina alditan egin edo aldatu daiteke testamentua. Testamentua egiten duzun lehen aldian gauza bat pentsatu dezakezu, baina hilabeteen edo urteen buruan, aldatu egin daiteke pentsatzen zenuen hori, eta ondorioz, testamentua ere alda dezakezu. Nahi duzunean egin dezakezu dokumentua, eta ez dago testamentua egiteko une egoki bat; baina, argi utzi nahi dut: komeni da testamentua eginda izatea.

Zergatik komeni da? Zer abantaila ditu testamentua eginda uzteak?

Abantaila nagusia da norberak esaten duela edo erabakita uzten duela bere ondasunak nola eta nori eman, eta horrek errazago bihurtzen du ondasun horiek banatzea.

Eta zer ondorio izan ditzake testamentua egin gabe izateak?

Kasu horretan, izendatu egin behar dira oinordekoak, eta legeak erabakiko ditu zeintzuk diren; derrigorrezko oinordekoak esaten zaie horiei. Legeak zer dio kasu horietan? Bada, seme-alabak direla lehen oinordekoak, egonez gero behintzat, eta horien artean banatuko direla ondasunak. Zenbat seme-alaba dauden, horrenbeste zatitan banatuko litateko ondasunak. Testamenturik ezean, jaraunsleak deklaratzeko akta egin behar da. Horrek guztiak ondasunak jasotzeko tramitea luzatu egiten du, eta izapideak egiteko lan

«Bi eratako testamentuak daude: batetik, Aurretiazko Borondateen Dokumentua, bizi testamentua bezala ezagutzen dena, non zure azken egunak nolakoak nahi dituzun zehazten duzun; eta bestetik, dituzun ondasunak uzteko egiten den ohiko testamentua»

gehiago izaten da, eta norbait hiltzen denean, gertukoa denean are gehiago gainera, horrentzako denborarik eta gogorik ez da izaten.

Zer hartu behar da kontuan testamentua egiterakoan?

Hiltzera joango bazina bezala egin behar da dokumentua. Ezin zara pentsatzen hasi seme hau gero ezkondu egingo zait edo alaba honek ondasun gehiago ditu. Momentuan momentukoa. Horretarako daude pentsatuta testamentuak. Inork ez daki bizi-

tzak nora eramango gaituen; urtebetera egoera aldatu egin bazazu, testamentua alda dezakezu eta ez da ezer gertatzen. Gainera, testamentua egitea edo aldatzea ez da oso garestia izaten.

Testamentua dirudunek edota ondasun ugari dituztenek egin beharreko zerbait izango balitz bezala hartzen dute herritarrek. Baina ohiko herritarrek zer utzi dezakete testamentuan?

Diru edo ondasun asko edo gutxi eduki, gauza ez da gehiegi aldatzen. Hori bai, asko izanez gero, zailagoa izango da testamentua egitea, baina horrelakoak ez dira gehiegi izaten, nire lanean behintzat; herritar xumeak izaten dira gehienak. Beste kontu bat da ondasun horiek banatzerakoan egon daitezkeen iskanbilak. Bada jendea ez duena onartzen testamentuak dioena, baina, normalean, lehendik arazoak dauden familietan gertatu ohi dira horrelakoak. Testamentuak, berez, ez du zertan iskanbila sortu beharrik, baina batzuetan ez da erraza izaten bakoitzak esperoak eta nahiak kudeatzea.

«Testamentua eginda uztearen abantaila nagusia da norberak esaten duela edo erabakita uzten duela bere ondasunak nola eta nori eman, eta horrek errazago bihurtzen du ondasun horiek banatzea»

«Euskal Herrian badugu testamentuak erregulatzeke legea, eta aukera asko ematen ditu»

Zer ondasun utzi daitezke testamentu batean?

Dituzun ondasun guztiak utzi dezakezu: higiezinak, dirua, lursailak, ibilgailuak... dena. Baina ondasunak ez diren gauzak ere sa daitezke testamentuan; adibidez, adin txikiko seme-alabak dituzten gurasoek jarri izan dute biak falta izanez gero, ezbeharren bat

gertatuz gero, nork edo nortzuk izan behar duten umeen tutore legalak adin txikikoak diren bitartean. Testamentuan tutoreak izendatuz gero, epaileak kontuan hartuko du hori. Beraz, ondasun material guztiak eta materialak ez direnak ere sar daitezke testamentuan.

Testamentua egiteaz aritu gara orain arte, baina jasotzea egokitz gero, zer gertatzen da?

Onartzeko edo ez onartzeko aukera duzu. Ondasunak hainbat lagunen artean banatu behar diren kasuan, pertsona bakarra bada testamentuari uko egiten diona, bere zatia beste oinordekoen artean banatuko da. Aldiz, oinordeko guztiak uko eginez gero, legeak erabaki beharko du ondasun horiekin zer egin edo nori eman.

Testamentuen lege berezirik ba al dugu Euskal Herrian?

Euskal Herrian badugu testamentuak erregulatzeke legea, eta aukera asko ematen ditu. Espainian, adibidez, seme-alabak izanez gero, legitima edo seniparte denei egokitzen zaie, ez badituzu jaraungabetzen behintzat. Ara-

ban, Bizkaian eta Gipuzkoan, al-diz, jaraungabetu gabe ere aukeratu dezakezu edo ditzaitezke nori utzi ondareak: seme-alabak ekin eta bilobei utzi, seme-alabak bakarrari utzi... Aukerak anitzak eta askotarikoak dira, eta komenigarria da zure ondasunak nola banatu nahi dituzun erabakita uztea, borondateak aurrez adieraztea, bai hiltzen denarentzat eta baita ondasunak jaso behar dituenarentzat. Eta ez ohiko testamentua bakarrik, komenigarria da Aurretiazko Borondateen Dokumentua ere eginda uztea: hori ere oso inportantea da eta oso erraza egiten. Hil aurretik zure iritzia emateko gai ez bazara, zer-nolako tratamendu medikuak jaso nahi dituzun esatea ere oso garrantzitsua da. Horretarako, hitzordua hartu behar duzu erregistroan, Aurretiazko Borondateen Dokumentuen erregistroan, eta momentuan egin dezakezu. Bata edo bestea izan, izapide errazak dira egiteko, eta herritarrak animatuko nituzke egitera, oso lagungarriak direlako, bai zeure buruarentzat eta baita oinordekoentzat ere.



Santiago auzoa, 18
943-86 26 11



Sartu gure online dendara eta egin zure erosketak etxetik

Ebex-ebeke zerbitzua



www.floristeriabasusta.com



Landareak
Dekorazioa eta opariak
Hileta zerbitzua
Lore-sortak
Ezkontzak





Hileta Zerbitzuak



· 943 89 49 37 · 24h · 943 42 21 29 ·

Zarautz Hileta Zerbitzuak, Memora eta Vascongada ehorzketa taldeen bat-egitea, aurrerapen nabarmena izango da ehorzketa sektorean, Zarautzen nahiz Euskal Herrian.

Bokazio eta ardura handiko 1.500 pertsonako lan talde bat dugu orain, zure alboan egoteko eta zerbitzu onena eskaintzeko. Maite duzun horri merezi duen agurra ematen lagunduko dizugu.

Instalazio berri, moderno, eroso eta argitsuak ditugu, eskualdeko lehen errausketa-labearekin. Zerbitzu guztiak, toki bakarrean izan ditzazun.

Gure beilatoki berrian, jada ezagutzen dituzun profesionalak izango dituzu. Betiko konfiantza eta gertutasuna bermatzeko.

Behar gaituzunean Zarautz Memora beilatokian aurkituko gaituzu, Abendañon.

Bokazioa, esperientzia eta sentiberatasuna oinarri dituen arreta, betiko esentziarekin.

· Urteta bidea 2 · 20800 Zarautz · 24 zure zerbitzura · 943 89 49 37 · 943 42 21 29 ·